



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 17a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, hezkuntza politikari eta Hezkuntzako ministroak iragarritako erreformek izan ditzaketen ondorioei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (5. or.).

—Jabeldura, zerga politikari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin. Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Osasun Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan Museoen Sarea osatzen duten zentroak irekitzeko asteburu eta jai-egunetan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsailaren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, Siriako egoera gaitzestekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu dekretu bidez onetsi den lan erreforma erretiratzearen alde dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Gendulaingo lurzoruak udalen alde sorturiko gainbalioen ordainketari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko neurririk hartuko ote den Eguesibarko eta Burlatako udaletan kudeaketa-lanak egiten dituzten hirigintzako sozietateekin amaitzeko, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (14. or.).
- Galdera, sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Berako liburutegi publikoan amatasun baja bat ez ordezkatzeko erabakiari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (16. or.).
- Galdera, Alderdi Popularrak hartutako neurri ekonomikoek enpleguan izanen duten eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Transferentzien Batzarraren bilera deitzeko aurreikuspenak ez bete izanari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, 2011ko aurrekontuen itxierari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (18. or.).
- Galdera, enpresen sustapenerako inbertsioen aurreikuspenari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Sodenak 2011n finantzaturako eta atzera botatako eragiketei buruzkoa, José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (20. or.).
- Galdera, sei hileko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak, Patxi Leuza García jaunak egina (21. or.).
- Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak murrizteko kudeaketa-hitzarmenari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2011ko abenduaren 31koa (23. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dioen legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.
2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.
3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Gure foru erkidegoko osasun zerbitzu publikoa pixkanaka bilakatzen joan da, halako moduz non toki entitateek arlo horretako eskumenak uzten joan diren eta eskumen horiek Nafarroako Gobernuak hartu dituen. Bera da ahalmen handiena duena baliabide pertsonalei eta materialei dagokionez, eta populazioaren premia guztiak asetzen dituen lurralde-ezarpenera ere badu, bai oinarrizko osasun laguntzan, bai laguntza espezializatuan, berehalakotasunez eta zerbitzuak eskatzen duen berme zientifikoarekin.

Testuinguru horretan, oraindik ere hondarreko udal zerbitzu batzuei eusten zaie (oinarrizko osasun laguntzako taldeen eskura dauden udal kontsultategien irautea ezertan kendu gabe), hain zuzen ere hiru kasutan: Tafalla, Orkoien eta Berriozar. Azken urte hauetan horiek diru-laguntzak jaso izan dituzte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuen kargura.

Tafallari dagokionez, udalak, baliabide berekiekin, udal zerbitzu terapeutikoa eskaini izan du. Berriozarrek, bere aldetik, ginekologia, familianplangintza eta emakumearen laguntzarako udal zerbitzua eman izan du, eta Orkoienek, berriz, familia-orientazioko eta sexu-hezkuntzako udal zerbitzua.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko laugarren xedapen gehigarriak baimena eman zion Nafarroako Gobernuari Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan sar zitzan Tafallako Zerbitzu Terapeutikoko funtzionario eta lan-kontratadun langile finkoak, herri horretako udalarekin ados jarrita.

2001eko azaroaren 30ean, akordio bat sinatu zuten Tafallako alkateak eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak,

udal zerbitzu terapeutikoko plantilla Administrazioaren plantillan sartzeko. Langileen sartze hori ez da gauzatu.

2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ez da inongo zenbatekorik aurreikusi zerbitzu horiek diruz laguntzen jarraitzeko. Hala eta guztiz ere, oraindik ere badaude zerbitzu horiek artatzen dituzten udal langileak. Toki entitateek zerbitzu horiek finantzatzeko dagoen zailtasunak, eta, bestalde, zerbitzuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun langileekin batera emateak, beharrezko egiten dute langile horiek erakunde autonomoan sartzea, bera izan dadin haiek bere kargu hartzen dituen, zerbitzua ematen jarraitze aldera.

Hori guztia dela eta, talde honek Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamen hau aurkezten du.

Artikulu bakarra. Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeari xedapen gehigarri bat eranstea, hamabigarrena, honako hitzez hitzeko testuarekin:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak udaletako osasun zerbitzuak bere gain hartzea.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako zerbitzuak hartzen ditu bere gain:

- Tafallako Udalaren zerbitzu terapeutikoa.
- Berriozarko Udalaren ginekologia, familia plangintza eta emakumearen zerbitzua.
- Orkoiengo Udalaren familia arretarako eta sexu hezkuntzarako zerbitzua.

2. Zerbitzu horiek hartzeak berarekin ekarriko du eranskinean zehazten diren bitarteko pertsonalak –eta ez bestelakorik– eskualdatzea.

3. Pertsona horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantillan sartuko dira, toki entitatean zeuzkaten lan-baldintza beretan.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak pertsona horiek atxikiko ditu beren lehengo lanpostuari hobekien egokitzen zaizkion lanpostuetan.

ERANSKINA

Honako pertsona hauek sartuko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren plantillan:

Izena	Jatorria	Araubidea	Lanpostua	Maila
Josefa Izaskun Lasarte Sagastibeltza	Berriozar	Lan-kontratupekoa	Gizarte-langilea	B
Rosa Marcotegui Mendinueta	Berriozar	Lan-kontratupekoa	Klinikako laguntzailea	D
Inmaculada Zabalza Fernández	Tafalla	Funtzionarioa	Psikomotrizista	B
Carmen Reras Romero	Tafalla	Funtzionarioa	Logopeda	
Ana Isabel Lacasa Pernaut	Tafalla	Lan-kontratupekoa	Logopeda	
María Josefa Rodríguez Pérez	Orkoien	Lan-kontratupekoa	Teknikari espezialista	C
Mara Dolores Quel Alzueta	Orkoien	Lan-kontratupekoa	Osasun hezitzailea	C

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, hezkuntza politikari eta Hezkuntzako ministroak iragarritako erreformek izan ditzaketen ondorioei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkezturiko jabeldura, hezkuntza politikari eta Hezkuntzako ministroak iragarritako erreformek izan ditzaketen ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Hezkuntzako kontseilari José Iribas jaunari.

Jabeldura, hezkuntza politikari eta Hezkuntzako ministro Wert jaunak iragarritako erreformek izan ditzaketen ondorioei buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak inbestidura-eztabaidan iragarri zuen honako hezkuntzaren legegintzaldia izanen zela, hain baita

handia Gobernu honek hezkuntzari ematen dion garrantzia.

Hezkuntzako kontseilariak, Departamentuaren jarduketa ildoetara buruz informatze aldera eginiko agerraldian, parte-hartze legegintzaldi bat eskaini zuen, zeinetan, beste zernahiren aurretik ikasleendako zerbitzua lehenetsita, bilatuko baita "hezkuntza ez dadin gatazkarako arma gisa erabil", eta agerraldi hartan adierazi zuen gakoetako bat izanen zela ikastetxeen antolamendua eta kudeaketa. Orobat ziurtatu zuen ikastetxeen autonomia aitortu eta bultzatu nahi zuela, zuzendaritza-taldeek aspalditik eskatzen duten moduan.

Hezkuntzako ministro Wert jaunak munta handiko aldaketak iragarri ditu hezkuntzaren arloan, eta, hori dela-eta, parlamentu-talde honek honako jabeldura hau egiten dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunari, jakiteko zein den Gobernuak proposamen horiei buruz duen iritzia eta zer ondorio izanen duten Nafarroako Foru Komunitatean, nola gauzatuko dituen, hezkuntza-erkidegoak zer parte-hartze izanen duen, bere ustez erreformak nola eraginen dien ikastetxeei eta ikastetxeen antolamenduari, eta aldaketa horiek ezartzeak zer gastu ekartzea aurreikusten duen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Jabeldura, zerga politikari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko jabeldura, zerga politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ekonomia eta politika fiskalari buruzko ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, jakite aldera, zehazki, zer neurri ezarriko dituen ondare handiek, enpresa-irabaziek, akzioen salmenta bidez lortutako irabazi espekulatioek eta kontribuzio fiskalarentzako gune opakuek ere jasan dezaten administrazio publikoen diru-sarreraren premia.

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de

Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bat egin dezan 2012an izanen den Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearekin, eta Adinekoaren Estatutua garatzeko proposamen bat egin dezan.

Europako Parlamentuak eta Europar Kontseiluek, 2011ko irailaren 14ko 940/2011/CE Erabakiaren bidez, Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtea izendatu zuten 2012a. Europarrak gero eta gehiago eta inoiz baino osasuntsuago bizi dira. Hortaz, abagunea da horri buruz hausnartzeko eta horrek eskaintzen dituen aukerak onartzeko.

Zahartze aktiboa lagungarria izan daiteke, etorkizuneko pertsona nagusiek gizartearen eginkizun aktibo bat izaten jarraitzeko aukera izan dezaten, euren esperientzia parteka dezaten eta ahalik eta modurik osasuntsuenean eta onenean bizi daitezten. Funtsezkoa da, orobat, belaunaldien arteko elkartasunari eustea pertsona nagusien kopurua azkar igotzen den gizarteetan.

Zahartze aktiboa sustatzea garrantzitsua da hala Europan nola Nafarroan, biztanleria gero eta zaharragoa delako eta adinekoek gero eta zeregin protagonistagoagoa dutelako eta eskatzen dutelako. Nafarroan, bizi-itxaropena 80,76 urtekoa da gizonezkoentzat, eta 86,53 urtekoa emakumezkoentzat. Batez besteko nazionala baino handiagoa, zeina 78,9 urtekoa baita gizonezkoentzat, eta 86,53 urtekoa emakumezkoentzat. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, 70 urtetik goitiko biztanle-kopurua 10.500 pertsona igo da azken hamarkadan, 80 urtetik goitikoena 4.000 pertsona baino gehiago igo da eta 100 urtetik goitikoena bikoiztu egin da (2002ko 72tik 2012ko 152ra).

Espainiak, Europako 2012ko Urtearen bidez, Europar Batasuneko estatuen ahaleginekin bat egin du, zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko. Imstersok "Zahartze aktiboaren liburu zuria" prestatu du, Espainiako Gobernuaren ekimenez, adinekoen bizi-kalitatea hobetzerantz bideratutako politikak gidatzeko. Liburuak ehundik gora proposamen jasotzen ditu, adinekoen errealitateari, desireri eta itxaropeneri erantzuten dietenak, etorkizuneko ikuspegitik helduta.

Iragan otsailaren 1ean, Osasuneko ministro Ana Matok Diputatuen Kongresuan iragarri zuen abian jarriko duela Adinekoaren Estatutua, adinekoen eskubideak "diskriminazio-mota ororen aurrean" babesteko eta "haien parte-hartze soziala

eta gizarte-zerbitzuak eskuratzea" ziurtatzeko. Ministroak iragarri zuen Adinekoaren Estatutua taxutzean adineko jendeak parte hartuko duela eta Adinekoen Estatu Kontseiluaren esparruan eginen dela. Nafarroako Foru Komunitatea Estatu Kontseilu horretako kidea da. Kontseiluak xede du adinekoen parte-hartzea eta lankidetzaren instituzionalizazioa.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazko erantzunak eskatu ditu:

1. Bat egin dezan Europako Parlamentuak eta Europar Kontseiluak 2012an abian jarri duten Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien Arteko Elkartasunaren Aldeko Europako Urtearen ospakizunekin eta jarduerekin.

2. Txosten bat igor diezaion Adinekoen Estatu Kontseiluari, Nafarroan baliatutako politiketan oinarritutako ekarpen zehatzak eginen dituen Adinekoaren Estatutua taxutzeko.

2. Komunikazio estrategia bat gara dezan, Nafarroak Adinekoen Estatu Kontseiluari egindako proposamenak ezagutzera emateko, adinekoei bizi duten errealitatea eta dituzten beharrezkoak ikusarazteko eta gizartearen sentsibilizatzen lagunduko duten datu deskriptiboak buruz informatzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita alda dezan Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Muin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorretan ikastetxe publikoen garbiketara bideratutako kontusailen murrizketak berehalako ondorioak izan ditu ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen garbiketaren nola sektoreko langileen lan-egoeran.

Ikastetxeen garbiketa-zerbitzuan murrizketa drastikoa gertatu da, aurrekontu-murrizketen arabera ere ez dena; izan ere, zenbait kasutan garbiketako langileen % 40tik goiti murriztu da, eta % 40 baino gehiago murriztu dira orobat garbiketa-egunak eta instalazioak garbitzeko maiztasuna. Egoera hori eragin negatiboa izaten ari da ikastetxe publikoetako garbiketa-baldintzetan eta horien erabiltzaile guztiengan (irakasleak, ikasleak, langileak, eta abar), bai eta irakaslan kalitatezko baldintzetan normaltasunez garatzerakoan ere.

Bestalde, zerbitzu horren enpresa esleipen-hartzaile pribatuek kontratatu ohi dituzte langile gehienak, eta, horrenbestez, horiek lotuta daude enpresa esleipen-hartzaileak mantendu nahi dituen murrizketa- nahiz irabazi-baldintzetara. Iraizpenak, lanaldi murrizketak, berez prekarioak diren soldata jaitsierak, lan-baldintzen okerragotzeak eta abar gertatu eta gertatzen dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren 2012rako aurrekontuetako garbiketarako kontusaila alda dezan, gastua 2011ko aurrekontu-ekitaldian onetsitako zenbatekoraino igotze aldera.

Iruñean, 2012ko otsailaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alda dezan Osasun Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita alda dezan Osasun Departamentuko aurrekontuetako garbiketa-lanei buruzko kontusaila.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako 2012rako aurrekontu orokorretan osasun-instalazioen garbiketara bideratutako kontusailen murrizketak berehalako ondorioak izan

ditu osasun-instalazio publikoen garbiketetan nola sektoreko langileen lan-egoeran.

Osasun-instalazio publikoen garbiketa-zerbitzuan murrizketa gertatu da, aurrekontu-murrizketen arabera ere ez dena; izan ere, zenbait kasutan luzaz gaintzen dira gertatu diren ekonomia-murrizketak: Instalazioak garbitzeko egunak eta maiztasuna murriztu da, eta langileen plantilla ere. Egoera hori eragin negatiboa izaten ari da instalazio horien garbiketa-baldintzetan eta, horrenbestez, horien erabiltzaileengan.

Bestalde, zerbitzu horren enpresa esleipen-hartzaile pribatuek kontratatu ohi dituzte langile gehienak, eta, horrenbestez, horiek lotuta daude enpresa esleipen-hartzaileak mantendu nahi dituen murrizketa- nahiz irabazi-baldintzetara. Iraizpenak, lanaldi murrizketak, berez prekarioak diren soldata jaitzierak, lan-baldintzen okerragotzeak eta abar gertatu eta gertatzen dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuaren 2012rako aurrekontuetako garbiketarako kontusaila alda dezan, gastua 2011ko aurrekontu-ekitaldian onetsitako zenbatekoraino igotze aldera.

Iruñean, 2012ko otsailaren 7an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan Museoen Sarea osatzen duten zentroak irekitzeko asteburu eta jai-egunetan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat presta dezan Museoen Sarea osatzen duten zentroak irekitzeko asteburu eta jai-egunetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren Museoen Sarea osatzen duten zentroak asteburu eta jai-egunetan ireki daitezen.

Nafarroako Gobernuaren Museoen Sareko entitate gehienek itxi egiten dute igandeetan eta jaiegunetan, eta horietako askok bai larunbat arratsaldeetan ere. Nafarroako Museoa, zeinaren titularra Nafarroako Gobernua baita, zabalik egoten da larunbatetan 09:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Ordutegi bera du Lizarrako Karlismoaren Museoa –hori ere Foru Gobernuarena da–, zabalik egoten baita larunbatetan 09:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara. Alegia, ezin dira asteburu osoan zehar bisitatu.

Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen fundazioen beste museo batzuk ere ez dira zabalik egoten asteburu osoan zehar. Jorge Oteiza Museoa itxita egoten da igande arratsaldeetan, eta Arte Garaikideko Muñoz Sola Museoa asteburuetan

eta igande goizetan bakarrik dago zabalik, 10:00etatik 13:30era. Salbuespena Uharteko Arte Garaikideko Zentroa da –Nafarroako Gobernua patronatukidea da–, asteburu osoan eta jaiegunetan zabalik dagoen bakarra baita, 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 20:30era.

Iruñeko Planetarioa –Nafarroako Gobernuaren mende dago, ENEC-Kulturguneen Nafarroako Enpresaren bitartez– bisitatzeko erraza da ikaste-txeentzat astelehenetik ostiralera, baina ezinezkoa da familiak eta bisitariak hara bisitan joatea, itxita egoten baita igandeetan eta jaiegunetan.

Izaera pribatuko nahiz udal titulartasuneko gainontzeko museoak eta kultur zentroak ere, –Museoen Sarean sartuta daudenak, itxita egoten dira asteburuetan, salbuespenak salbuespen.

Europako joera da, eta Espainiako hiri asko ere horrekin bat egiten ari dira, museoak eta kultur zentroak asteburuetan irekitzea, zertarako eta familiek gune horiek gozatu ahal izan ditzaten. Espainian erreferentziakoak diren museoak zabalik egoten dira larunbat eta igande osoan zehar, bai eta jaiegunetan ere. Posiblea da, esate baterako, Gipuzkoan titulartasun publikoko museoak bisitatzeko, adibidez Zumalakarregi Museoa, igande arratsalde batean edo jaiegun batean. Madrilen arazorik gabe joan daiteke lanegun ez diren egunetan eta jaiegunetan Pradoko Museora edo hiriko Planetarioa.

Horregatik guztiagatik, Parlamentu-talde Popularrak ondoko mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Sei hilabeteko epean plan bat egin dezan, zertarako eta Nafarroako Gobernuaren titulartasun publikoko museoak eta kultur zentroak zabalik egon daitezen asteburuetan.

2. Museoak asteburuetan zabaltzeko plan hori susta dezan eta abantaila eta erraztasun sorta bat ezar dezan titulartasun publikokoak ez diren Nafarroako Museoen Sareko gainontzeko zentroek ekimenarekin bat egin dezaten.

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko otsailaren 9ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzearen arloko politika orokorra.

Otsailaren 9ko jabeldurak eztabaida eragin zuen parlamentu-taldeen artean, UPN eta PSNren Gobernuaren lehentasunetan enpleguak duen tokia dela-eta. Guk fure iritzia adierazi genuen, hots, egia dela enplegua oso garrantzitsua dela Gobernuarentzat, baina ez garrantzitsuena. Azpimarratu genuen lehentasunen zerrendan enpleguaren gainetik daudela legez ezarritako defizita betetzea eta presio fiskala ahal den txikiena izan dadin kontrolpean edukitzea.

Badakigu Gobernua gogor ari dela lanean enpleguaren alde, baina enplegua eta funtsezko beste bi lehentasunak –defizita betetzea eta presio fiskala ahal den txikiena izatea– aurrez aurre jarritz gero, Gobernuak bi horiei ematen die lehentasuna. Esan gutuzen hori ez dela horrela, baina

aitortu zuten defizita betetzea betebeharrak dela, eta enplegua, aldiz, obsesio bat. Alegia, adierazi zitzaigun defizita bete beste erremediorik ez dagoela, eta enpleguaren arloan, aldiz, ez daukagula legez bete beharreko zifra bat (defizitaren kasuan, % 1,3).

Finean, Gobernuak lerro gorri bat dauka defizitari dagokionez –ez ordea presio fiskalaren arloan, baina hori jarrera ideologiko bat da–, baina ez dauka lerro gorririk enpleguarenean. Gainera, jabelduran nabarmendu genuen bezala, Gobernuak badaki defizitaren arloan ezin duela aitzakiatan ibili eta beste batzuei leporatu defizitaren balizko ez-betetze bat; eta enpleguaren arloan, lerro gorririk ez egoteaz gain, beti balia dezake “enplegua enpresek sortzen dute” dioen topikoa.

Gure ustez, arestiko argudioek ez dute zalantzarako tokirik uzten: enplegua lehentasun oso garrantzitsua da Nafarroako Gobernuarentzat, baina ez garrantzitsuena, eta garrantzitsuagoak direnekin talka eginez gero, besteen alde egiten du.

Egia da Europar Batasunak ez dituela helburu neurgarriak ezarri enpleguari dagokionez, zeintzuetatik erator daitezkeen, defizitaren kasuan bezala, estatu bakoitzak bete beharreko helburuak –eta autonomia erkidego bakoitzak bete beharreko helburuak, baliatu den moduari buruz ikamikan sartu gabe–, baina horrek ez du esan nahi Nafarroan ezin dugunik halakorik egin.

Horrenbestez, eta Lizarbe jaunaren hitzak geure eginez, uste dugu enplegua betebeharraren kategoriara igoarazi beharko genukeela, eta, hori dela-eta, parlamentu-talde oneko ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du heldu den martxoaren 31 baino lehen helburu bat ezar dezan 2012rako enpleguari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan enpleguaren arloko helburu bat proposa dezan urtero, aurrekontuan gainerakoarekin batera eztabaidatu eta onesteko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-tzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsailaren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu arbuia-tzen duela nazioko Gobernuak pasa den otsailaren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan otsailaren 10ean, Espainiako Gobernuak dekretu bidez onetsi zuen lan-erreforma. Parla-mentu-talde honen iritziz, erreforma horrek atzera-kada sozial onartezina eta bidegabekeria jasanezina dakartza berekin, eta larriki urratzen ditu langileen eskubideak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adie-razten du Espainiako Gobernuak 2012ko otsaila-ren 10ean dekretu bidez onetsitako lan-erreforma dela-eta.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Adierazpen instituzionala, Siriako egoera gaitzestekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna eta babesa eskaini nahi dizkie giza eskubideak eta demokrazia bezain funtsezkoak diren ideiak eskatzeagatik indarkeria-egoera pairatzen ari diren Siriako gizon-emakumeei, zeren eta herriaren subiranotasuna ordezkatzeko duen erakunde demokratikoa den aldetik, guztiz jabetzen baita askatasunaren, giza duintasunaren eta berdintasunaren balioaz.

2. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentua Espainiako Gobernua hondoraino inplikatzearen alde dago, Europar Batasuneko bazkideekin koordinatuta, Sirian eta erregio osoan bakea lor dadin, odol jariora geraraz dadin eta baliabideak abian jar daitezkeen Siriako trantsizioa egiteko giza eskubideak, pertsonen duintasuna eta demokrazia errespetatzera”

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu dekretu bidez onetsi den lan erreforma erretiratzearen alde dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du lan merkatua erreformatzeko presako neurriei buruzko otsailaren 10eko 3/2012 Errege Lege Dekretua erretiratzearen alde dagoela. Erreforma hori

zuzengabea eta desorekatua da, enpresen interesak defendatzen baititu langileak guztiz ahaztuta, eta ez du balioko atzeraldi eta krisialdiko une batean enplegua sortzeko.”

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gendulaingo lurzoruak udalen alde sorturiko gainbalioen ordainketari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, Gendulaingo lurzoruak udalen alde sorturiko gainbalioen ordainketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Etxebizitzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak uste al du bere ardura eta, horrenbestez, eskumena dela, kasuko udalez gaidiko proiektu sektoriala onetsi ondotik Gendulaingo lurak udalen alde sortzen dituen plusbalioak ordaintzea?

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, jakiteko neurririk hartuko ote den Eguesibarko eta Burlatako udaletan kudeaketa-lanak egiten dituzten hirigintzako sozietateekin amaitzeko.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko neurririk hartuko ote den Eguesibarko eta Burlatako udale-

tan kudeaketa-lanak egiten dituzten hirigintzako sozietateekin amaitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Lehendakari, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Comptos Ganberako lehendakariak Parlamentuan 2012ko otsailaren 8an egindako agerraldiaren ondotik, eta ikusita, orobat, Eguesibarko eta Burlatako Udalen kontuei buruzko fiskalizazio txostenak, non agerian jartzen baitira hirigintza arloko kudeaketaren gardentasun eza eta opakutasuna –izan

ere, bi udal horietako bakoitzak enpresa misto bat (publikoa eta pribatua) sortu du, eta horrek praktikan dakar udalaren interesak eta eginkizunak pribatizatzea–, ondokoa jakin nahi dut:

Zure Departamentuak ekimenen bat abiaraziko al du Eguesibarko Udalaren “Gestión y Promoción Egüés 21, S.A.” eta “Gestión y Promoción Egüés 21-II, S.L.” enpresen nahiz Burlatako Udalaren “Ripaberri Desarrollo Urbano, S.L.” eta “Erripagaina Desarrollo Urbano, S.L.” enpresen opakutasunarekin amaitzeko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa.**KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

“Gobierno del Estado. 411 zenbakiko dekretua.

En el resurgir de España destacó Navarra de modo señalado por su heroísmo y sacrificio. Fue Navarra la provincia en que se fijaba la mirada de los españoles en los días tristes del derrumbamiento de la Patria; fue el crédito de sus virtudes el que la convirtió en sólida base de partida de

nuestro Alzamiento, y fue su juventud en armas la que en los primeros momentos formó el nervio del Ejército del Norte. Durante toda la campaña los navarros, con su bravura legendaria, encuadrados en los Tercios de Requetés, en Banderas de Falange y en Batallones, rivalizaron en valor con las más distinguidas fuerzas del Ejército.

España entera rinde homenaje y simpatía a las virtudes y alto espíritu de un pueblo, en que no se sabe qué admirar más, si el valor de los que valientemente mueren en los frentes o la generosidad y patriotismo de quienes, alegres, entregan a la Patria lo más querido de los hogares.

Es la Cruz Laureada de San Fernando el más alto galardón de nuestras Milicias, el símbolo más destacado del valor y del sacrificio heroico. Por ello, nunca puede estar más justificado la ejecutoria que una Cruz Laureada de San Fernando a las Cadenas gloriosas y simbólicas de su Escudo.

Por todo ello dispongo:

Artículo único. Como recuerdo a las gestas heroicas de Navarra en el Movimiento Nacional y homenaje a quien tan reciamente atesora las virtudes de la Raza, concedo a la provincia de Navarra la Cruz Laureada de San Fernando, que desde hoy deberá grabar en sus Escudos.

Dado en Burgos a ocho de noviembre de mil novecientos treinta y siete. Año Triunfal. Francisco Franco”

Hitzez hitz hori dioen testu hori baliatuta, Estatuak Nafarroa behartu zuen bere armarrarian gurutze erramuduna jartzera.

2011ko martxoaren 25ean, berriz, Parlamentuko Osoko Bilkurak ondoko erabaki proposamena onetsi zuen gehiengo osoz:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua prematzen du berehala ordeztu dezan Nafarroako Jauregiaren San Ignazio etorbideko fatxadako goiko triangeluan ageri den Nafarroako Armarraria, bai eta gure erkidegoan egon litekeen beste edozein sinbolo frankista ere.”

Erabakia onetsi zenetik ia urtebete igaro delarik, ohikoa denez gero Nafarroako Gobernuak

Legebiltzar honen erabakiak ez betetzea baldin eta bere interesekin bat ez badatoz –oraingo honetan, sinbolo frankistak mantentzea–, ondokoa jakin nahi dut:

- Zergatik ez da bete gure erkidegoan sinbolo frankistak kentzeari buruz Legebiltzar honen gehiengoak adierazitako borondatea? Nafarroako Gobernuak ba al du sinbolo frankistak kentzeko asmorik ala erabakia betetzeari uko egiten jarraituko al du?

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketza Díaz

Galdera, Berako liburutegi publikoan amatasun baja bat ez ordezkatzeko erabakiari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Berako liburutegi publikoan amatasun baja bat ez ordezkatzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nekane Pérez Irazabal andreak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako Kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean.

Zergatik erabaki du Nafarroako Gobernuak Berako udal liburutegi publikoan amatasun baja ez ordezkatzeko? Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak herritarrei zerbitzua bermatzeko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Alderdi Popularrak hartutako neurri ekonomikoek enpleguan izanen duten eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Alderdi Popularrak hartutako neurri ekonomikoek enpleguan izanen duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Neurri ekonomikoak hartu ostean, esate baterako PPre neurriak aplikatzea, langileen nomintan zuzeneko ezarpena egiteari dagokionez:

- Nafarroako Gobernuak zer inpaktu aurreikusten du enpleguari dagokionez? Gobernuaren ustez, zein izan daiteke langabezia-tasa 2012ko ekainaren 30ean?

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Transferentzien Batzarraren bilera deitzeko aurreikuspenak ez bete izanari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Transferentzien Batzarraren bilera deitzeko aurreikuspenak ez bete izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zergatik ez ditu betetzen nork eta berak eginiko aurreikuspenak Transferentzia Batzordea deitzeari dagokionez?

Iruñean, otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2011ko aurrekontuen itxierari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2011ko aurrekontuen itxierari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunari, Batzordean ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak, 2011ko irailaren 7an hartutako erabaki bidez, diru-sarreraren gaineko aurreikuspenen jaitsieraren eta defizitaren helburua ez betetzeko arriskuaren aurrean, gastua murriztea erabaki zuen, helburua betetzea ziurtatzeko, ondoko baldintzei jarraikiz:

– Ekitaldiko diru-bilketa fiskalaren aurreikuspena 3.121,3 milioi eurokoa da, hasierako aurrekontuko 3.258,7 milioiko aurreikuspena berrikusi ostean.

– 2010eko ekitaldi-ixtean erabilitako kontabilitate-irizpideak mantentzea 2011n; besteak beste, eta

bereziki, Pirinioetako Autobiaren kontabilitzazioari buruzkoa.

– 3.691,4 milioi euroko diru-sarrera ez-finantzario berrikusiak, eta, azkenean, 3.809,4 milioi euroko gastu ez-finantzarioko muga.

– 294,26 milioi euroko murrizketa aurrekontugastuan, hiru bloketan zatitua: 190,60 milioi gutxiago departamentuei esleitutako gastuan, 41,90 milioiko ez-betetze arrunteko aurreikuspena eta esleitu gabeko 61,76 milioiko kontusail bat.

– Nafarroako Gobernuak iragarri duen 2011ko ekitaldi-ixteak ondokoa iradokitzen du:

– 3.103,3 milioi euroko diru-bilketa, irailean aurreikusitako 3.121,3 milioi euroren aldean; hau da, 20 milioi gutxiago.

– 282,3 milioi gutxiagoko gastua, irailean aurreikusitako 294,26 milioiko murrizketaren aldean; hau da, 10 milioi gutxiagoko murrizketa.

– Bi gorabehera horiek esplikatuko lukete defizitaren helburuaren betetzean gertatzen den 30 milioiko deskoadratzea.

Halere, aurkeztu den 2011ko ekitaldi-ixtean, eta Pirinioetako Autobia kontabilitate nazionalako irizpideekin sartuz gero –hartara, konparazioa behar bezala egin ahalko da–, defizita BPGaren % 1,73koa izanen litzateke (330 milioi euro inguru); hau da, % 1,3ko defizitaren helburua baino 80 milioi euro inguru gehiago.

Horra galdera: Departamentuz departamentu aurkeztutako diru-bilketak eta gastuek 30 milioiko deskoadratzea baino ez badute azaltzen, nola azaltzen da 80 milioiko deskoadratze hori?

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, enpresen sustapenerako inbertsioen aurreikuspenari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, enpresen sustapenerako inbertsioen aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia eta Ogasun Batzordean izapideztea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Miranda jaunari, Batzordean ahoz erantzun dezan.

2012ko urtarrilaren 12an, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak adierazi zidan Enpresak Sustatzeko Sozietateei 2000tik 2011ra bitarte emandako funtsen % 70 bideratu dela Sozietateen gaineko Zergari buruzko 124/1996 Foru Legeko 167. artikuluko b) letran azaltzen diren operazioetara.

Horra galdera:

Noiz aurreikusten da funtsen gainontzeko % 30 Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legeko artikuluko horretan ezarritakora bideratzea?

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Sodenak 2011n finantzaturako eta atzera botatuko eragiketei buruzkoa.

JOSÉ FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Fernando Ibiltzieta eta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, Sodenak 2011n finantzaturako eta atzera botatuko eragiketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari J. Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zenbat operazio finantzatu dira 2011n zehar Sodenaren abalarekin nahiz Socenak nolabait lagunduta? Adierazi operazio horietako bakoitzaren zenbatekoa.

- Sodenari aurkeztutako zenbat operazio ukatu edo baztertu dira 2011n zehar? Zergatik? Adierazi operazio horietako bakoitzaren zenbatekoa.

- Zenbat enpresa sortu ditu CEINek 2011n zehar?

Iruñean, 2012ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

1. Non daude Iruñeko Gazteluko Plazako lurrazpiko aparkalekua eraikitzean aurkitutako aztarna arkeologikoak? Jendeak ba al du horiek bisitatzeko modurik?

2. Ba al da obra horretan aurkitutako guztiaren erroldarik edo katalogorik? Hala baldin bada, kopia bat nahi nuke.

3. Nafarroako Gobernuak zer asmo dauka Gazteluko Plazan aurkitutako aztarna arkeologikoak balioan jartzeko?

4. Iruñeko Katedrala zaharberritzeko obretan aurkitutako aztarna arkeologikoen jabetza, tratamendua eta destinoa.

Iruñean, 2012ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, sei hileko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, sei hileko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harramanetarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Foru Komunitatea Espainiaren ordezkaria da, sei hileko honetan, Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan. Otsailaren 9an eta 10ean, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilaria Kontseilu horretan izan zen, Espainiako gainontzeko autonomia erkidegoetako kontseilariak ordezkatzuz. Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer lan-egutegi aurreikusi du Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan Espainia ordezkatzeko duen seihilekorako? Nafarroako Gobernuko kontseilariek zein egun zehatzetan bidaiatuko dute Bruselara Kontseiluan

parte hartzeko? Nafarroako Gobernuko zer kontseilarik parte hartuko dute Kontseiluan?

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer eragin izanen duen Descalzos kaleko haur eskolan Nafarroako Museoa handitzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremantarako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

• Nafarroako Museoa handitzeak zertan eraginen dio Descalzos kaleko Udalaren Haur Eskolari?

Iruñean, 2012ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak murrizteko kudeaketa-hitzarmenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak murrizteko kudeaketa-hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamen-

duak dioenari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galderak helarazten dizkio, idatziz erantzun ditzan.

1. Azkenik, zertan gauzatuko da osasun zerbitzuetako itxaronzerrendak arintzeko planteatzen den "kudeaketa hitzarmena"?

2. Noizko aurreikusten duzue ezartzea? Aldez aurretik sindikatu eta bestelako eragileekin adostutakoa izanen dela adierazi ondoren, adostasunak lortzeko eta neurriak ezartzeko egutegia helaraztea nahiko genuke.

3. Aurretik adierazi zenigun esperientzia piloto gisa ezarriko litzatekeela, aurrena. Erabaki duzue jadanik zer irizpide erabiliko duzuen horretarako?

4. Jakin dezakegu dagoeneko zenbateko gastua izango duen eta aurrezpen ekonomikorik izango duen aurreko "peonada" sistemarekiko?

Iruñean, 2012ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen zerrenda, 2011ko abenduaren 31koa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero presatuko duela Legebiltzarreko funtzionarioen zerrenda, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2011ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuan 2011ko abenduaren 31n lanean ari ziren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IZEN-ABIZENAK	MAILA	GRADUA	LANPOSTUA	ADMINISTRAZIO EGOERA
IDAZKARITZA NAGUSIA				
DÍEZ LAGO, PABLO	A	7	Legelari nagusia	Aktiboa
Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza				
ALFARO ERVITI, CARMEN	C	7	Administrari burua	Aktiboa
LASECA ESCUER, JOSE RAMÓN	C	6	Administraria	Aktiboa
ZERBITZU JURIDIKOAK				
ESPARZA OROZ, MIGUEL	A	7	Legelari nagusiaren ondokoa	Aktiboa
BERMEJO GARDE, MOISÉS	A	7	Legelaria	Zerb. bereziak
PULIDO QUECEDO, MANUEL	A	6	Legelaria	Aktiboa
DOMÉNECH ALEGRE, SILVIA	A	3	Legelaria	Aktiboa
ZERBITZU OROKORRAK				
CERRO PAÚL, FRANCISCO J. DEL	B	7	Zerb. Orokorretako burua	Aktiboa
LARRAÑETA LIZARRONDO, M ^a VICTORIA	B	7	Teknikari diplomatua	Aktiboa
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	5	Informatikako goi mailako teknikaria	Aktiboa
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	4	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
MARZAL PARRA, M ^a ASUNCIÓN	B	5	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
ARDAIZ EGÜÉS, ÁNGEL	C	6	Administraria	Zerb. bereziak
BEAR SANZ, CARLOS	C	6	Administraria	Aktiboa
DÍAZ DE RADA TURUMBAY, JUANA HUTSIK	C	7	Administraria	Aktiboa
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	6	Administraria *	Zerb. bereziak

IZEN-ABIZENAK	MAILA	GRADUA	LANPOSTUA	ADMINISTRAZIO EGOERA
Gelazain nagusia				
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	5	Gelazain nagusia	Aktiboa
ADOT LOPERENA, M ^a ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Aktiboa
ARIZCUREN REY, M ^a ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Aktiboa.
FADRIQUE GARDE, ISABEL	D	7	Gelazaina	Aktiboa
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	5	Gelazaina	Zerb. bereziak
MARTÍNEZ ORDUÑA, M ^a JESÚS	D	5	Gelazaina	Zerb. bereziak
MONEO MARTÍNEZ, M ^a INÉS	D	5	Gelazaina	Aktiboa
TORRES IBARROLA, JESÚS M ^a	D	6	Gelazaina	Zerb. bereziak
URMENETA MARÍN, OLGA	D	5	Gelazaina	Aktiboa.
VENTURA ARBILLA, ANA ISABEL	D	6	Gelazaina	Zerb. bereziak
HUTSIK	D		Gelazaina	
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA				
GIL MARTÍNEZ, CARLOS JAVIER	A	6	Prentsako burua	Aktiboa
HUTSIK	A		Komunikazio teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	4	Itzultzailea	Aktiboa
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	3	Itzultzailea	Aktiboa
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	4	Protokoloko teknikaria **	Aktiboa
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, BELÉN.	C	6	Administraria	Aktiboa
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	5	Administraria *	Aktiboa
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	5	Transkriptorea	Aktiboa
HUARTE CAMPIÓN, ANA ISABEL	C	7	Transkriptorea	Aktiboa
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	6	Transkriptorea	Aktiboa
SÁENZ GARCÍA, M ^a CARMEN	C	6	Transkriptorea	Aktiboa
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	5	Transkriptorea *	Aktiboa
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	3	Transkriptorea	Aktiboa
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, LUIS JAVIER	A	6	Artxibo eta Liburutegiko burua	Aktiboa
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	4	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
ALEGRÍA GOÑI, M ^a CARMEN	B	3	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Aktiboa
MITXELENA ENBIL, IZASKUN AMAIA	C	5	Administraria *	Aktiboa
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	6	Administraria	Aktiboa
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAIETARAKO ZERBITZUA				
ZULET RECALDE, FERNANDO	B	6	Kontu-hartzaitzako burua	Aktiboa
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
HUTSIK	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a VICENTA	C	7	Administraria	Aktiboa
PÉREZ DE RADA ARISTEGUI, M ^a EUNATE	C	7	Administraria	Aktiboa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA				
BALDUZ GIL, JORGE	B	2	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Aktiboa
ECHEVERRIA UHALTE, CELINA	C	7	Administraria	Aktiboa
LAINEZ GIL, MAR	C	6	Administraria	Aktiboa
HUTSIK	C		Administraria	
HUTSIK	D		Gelazaina	

(*) Euskarazko titulua nahitaezkoa duen lanpostua

(**) Ingelesezko titulua nahitaezkoa duen lanpostua